

EH Bildu Andoainen, EAJ-PNV Urnietan

Andoni Alvarezek alkateza eskura dauka, Andoainen. Urnietan Jorge Segurado garaille izan da, baina jeltzaleek gehiengo osoa galdu dute /

2-7

Gazte festak, ate joka

Ostiralean hasi eta igandera bitarte, Urnieta Gazte Festetan murgilduko da / 8-9

Esku pilotako Herriartekoan finalurrekoetara sailkatzeko aukera du Andoain herriak / 12

Andoaingo argazkilarien erakusketa kolektiboa, Bastero Kulturgunean / 15

FINALAURREA SAGARDOAREN TXAPELKETA™

Ekainak 5. Astelehena 18:00etik aurrera, Galarreta jai alai (Hernani)

Orona Sarrera 10€

1ª PARTIDA 2 SETS - 10 SARTORA - 3 SETA - 6 SARTORA	2ª PARTIDA 2 SETS - 10 SARTORA - 3 SETA - 6 SARTORA
Alorrenea URRIZA MARTIRENA	Segurak BARRAZIARTUA SEGUROLA JUANENEA
oialume zar suprematista	ORONIA X TOLDA EZHURRA II ZUBIRI

OROA MENDI **ABURUZA** **Petritegi** **Orona** **AIURRI**

ERREMONTARI

ANDOAIN | Ziklo politiko berrirako hautetsiak



Marka berria ezarri du EH Bilduk

2019ko emaitza ona hobetzea lortu du EH Bilduk. Boto kopuruari eta portzentariari erreparatuta, maiatzaren 28an hautagaitza batek inoiz lortu duen emaitza onena izan da. Bederatzi hautetsirekin, EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek gehiago osoa dute



Hautesontziak Allurralde kiroldegian eta Arrate pilotalekuan jarri zituzten. AIURRI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

EAJ-PNVk 1979ko udal hauteskundeetan lortu zuen emaitzak gaindiezina zirudien. 2727 boto lortu zituzten, eta boto-portzentaiaren %41,42. Erramun Ansa izan zen orduko alkategaia. Berrogei urte geroago, Ansa bizirik zegoela, haren bizilagun zen Andoni Alvarez EH Bilduko alkategaia izan zen. 2.823 boto eta boto-portzentaiaren %38,53 eskuratu zuen 2019an. Lau urte atzera gertatu zena, aski ezaguna da. Andoni Alvarez eta EH Bildu oposizioan geratu ziren, PSE-EEko Maider Lainezek eta EAJ-PNVko Marijose Izagirrek gobernu-hitzarmena sinatu ostean. Babes zabala duen hautagaia oposiziara bidaltzea ariketa zaila da. Eta lau urteko jardunari zukuera atera behar zaio.

Bistakoa da ez diotela gobernagarritasunari zukuera atera. Edo, behintzat, herritarrek ez dute hori barneratu. Eta 2023ko maiatzaren 28an gobernu taldeko kide diren PSE-EEk eta EAJ-PNVk botoetan eta boto-portzentaiaren galera izan dute. EH Bildu da botoetan eta boto-portzentaiaren hazi den alderdi bakarra. Emaitza ikusgarria da: 2886 boto, eta %44,63ko boto-portzentaia.

EH Bilduren gobernuak oztopatzea oso zaila ikusten da. Lau urteotan, Elkarrekin Podemosekin sintonian izan dira. Bien artean gehiago osoa ziurtatzen duten bederatzi zinegotzi dituzte. PSE-EE, EAJ-PNV eta Podemosen arteko aliantza ez da aukera bat, une hauetan.

Udal hautagaien adierazpenak

ANDONI ALVAREZ

"Andoaindarrei eskerrak ematearekin batera, emaitzak apaltasun eta ardura osoz hartzen ditugu. Udal gobernu sendoa osatu nahi dugu, datozen urteak erabakigarriak izango baitira urtezia handiko gai askorentzat".


MAIDER LAINEZ

"Bost zinegotziak mantendu ditugun arren, onartzen dugu gure emaitza ez dela ona izan. Argi genuen alkatetza mantentzeko bost zinegotzirekin ez zela nahikoa izango. Onena ematen jarraituko dugu".

IMANOL GOENAGA


"Eskerrik asko EAJ-PNVrengan konfidantza jarri duten guztiei. Ez dira guk esperotako emaitzak eta, beraz, ez dira gure aurrikuspenak bete. Herrigintzan eta oposiziotik etorkizuneko Andoain eraikitzen jarraituko dugu".

Maiatzaren 28ko udal hauteskundeak, datutan



Udal hauteskundeak 2023 - Andoain

Boto kopurua - Eskrutinioa: %100,00



Alderdia	Botoak	Ehun.	Eser.
EH Bildu	2.886	%44,63	8
PSE-EE	1.649	%25,50	5
EAJ-PNV	1.178	%18,22	3
PODEMOS	432	%6,68	1
PP	201	%3,11	0

NIRE USTEZ

JON ANDER UBEDA
KAZETARIA

2019ko udal hauteskundeetan bigarren itzulia

Datuak alderatzen hasita, ondorio asko atera daitezke. Eta udal hauteskundeak eta Foru Aldundikoak, alderatzen jarrita, tokian tokiko hautagaiei buruzko hainbat ondorio atera daitezke.

Hautesle askorentzat Andoni Alvarez eta Maider Lainez hautagai onak dira. Babes zabalagoa lortu dute, biek ala biek, udal hauteskundeetan, Batzar Nagusietan baino. Imanol Goenagarekin, aldiz, kontrako zantzuak antzematen dira. Joera bat da Andoainen, alderdi horretan. Udal hauteskundeetan hauteslea erakartzeko formularekin ez dute asmatzen. Batzar Nagusietarako hauteskundeetan emaitza hobekia lortzen dituzten bitartean, udalerrri mailan zerbaitetan huts egiten ari direla esan daiteke.

Elkarrekin Podemoseko Pepe Iparragirrek eutsi dio ordezkartzari. Irautea garaipen modukoa da moreentzat.

Maider Lainez alkateak ez dio probetxua atera bere agintaldiari. Ez du boto berria erakartzen asmatu. Boto-porzentaia eusten diote sozialistek, baina abstentzioak bere hautagai zuzenari baino gehiago eragin dio.

Etxean geratzea hautagaia zigortzeko modu bat da. Eta hori gertatu da, Andoainen.

Andoni Alvarezek, aldiz, marka berria ezarri du. Erraz esaten da, baina beste aukerarik ez zuen. 2019ko hauteskundeetan bigarren itzulia bizi izan genuela ondorioztatu daiteke. Oposizioan egoten asmatu zuen EH Bilduk, eta aukera berria iritsi denean, kolpe berria eman. Andoni Alvarez hautagaia aski ezaguna da, eta hautes-zerrendan, herrian, irismen maila handia duten hautagaiak aurkeztu ditu.

AIURRI

URNIETA | Ziklo politiko berrirako hautetsiak



EAJ-PNV eta EH Bildu, PSE-EEri begira

Maiatzaren 28ko gauan, lehen azterketan, EAJ-PNV alderdiak gehiengo osoa galdu zuela nabarmendu zen. Joko politiko asko ekar dezakeen agintaldia izango da, sozialistak historikoki jeltzaleak estutzen saiatu direlako. Giltza PSE-EEK dauka



Bozketa, igande iluntzean, Udal pilotalekuan. AIURRI

Jon Ander Ubeda URNIETA
Urnietarrek hitz egin dute. Eta, Gipuzkoa osoan bezalaxe, dozenaka batzuk isilik geratzea erabaki dute. Bestela esanda, botoa eman gabe geratu direla. Horrek ondorio nabarmena ekarri du Urnietako giro politikoan. EAJ-PNVk irabazi bai, baina gehiengo osoa galdu du. Eta horrek joko politikoa aldaraziko du. EH Bilduk eta PSE-EEK garrantzi handiagoa hartuko dute, beren aliantzak gehiengo osoa ziurtatzen dutelako. Gaurkoz, eta,, EAE mailan, ezustekorik ez bada ematen, Jorge Seguradok esku-ra dauka alkatetzeta. Baina aurretik izango dituen lau urteak zailak izan daitezke. Jeltzaleen eta sozialisten artean, egun hauean, gobernagarritasuna ziurtatzeko hitzarmenik sinatzen ez bada, bozketa garrantzitsu bakoitza gudu-zelai bilakatuko da.

Segurado, erraz, alkate izan daiteke. Nahikoa da ekainaren 17an alderdi bakoitzak bere hautagaiari botoa ematea EAJ-PNVk alkatetzari eusteko. Baina hori lorpen gazi-gozoa izan daiteke jeltzaleentzat. Hitzarmenik gabe, gobernagarritasuna ez baita erraza izango. Irudikatzen alkateta bat oposizioak adostutako udal aurrekontuak kudeatzen? Bada, Urnietan hori gerta daiteke. PSE-EEren bi botoak erabakiorrak direlako, EAJ-PNVk eta EH Bilduk ezin baitute PSE-EErik gabe proposamenik aurrera gauzatu.

Udal hautagaien adierazpenak



EAJ-PNV.

JORGE SEGURADO
"Oso zaila da azken hauteskundeetako bozka-kopurua errepikatzea. Nire ustez, emaitza onak izan ditugu. Lanean jarraituko dugu, Urnieta hobetzeko. Aurrerantzean, Udal Gobernu nola bete hitz egin beharko dugu, baina, bai, emaitza onak izan ditugu."

ehbildu

EH BILDU.


EUKENI GARMENDIA
"Emaitzak ikusita, bost zinegotzirekin gelditu gara: bigarren indarra gara berriro ere, baina sentsazio onekin gaude, lan egitea dagokigu eta herritarrei entzutea".



PSE-EE.


HERME GONZALEZ
"Bi lehentasun genituen: EAJ-PNVri gehiengo osoa kentzea eta geuk hirugarren hautetsia eskuratzea. Bigarrena ez da posible izan. Desastre bat da hain parte-hartze txikia izatea. Zer pentsatua ematen du horrek".

Maiatzaren 28ko Udal hauteskundeak, datutan



Udal hauteskundeak 2023 - Urnieta

Boto kopurua - Eskrutinioa: %100,00



Alderdia	Botoak	Ehun.	Eser.
EAJ-PNV	1.057	%40,94	6
EH Bildu	873	%33,81	5
PSE-EE	375	%14,52	2
ELKARREKIN PODEMOS	148	%5,73	0
PP	73	%2,83	0

Batzar Nagusietako emaitzak ez dira berdin-berdinak

Hasteko, EAJ-PNV alderdiak udal hauteskundeetan emaitza hobe ateratu du. Boto gutxiago jaso ditu Ahdun Nagusirako hauteskundeetan. EH Bildu eta PSE-EE alderdien kasuan, adi-

bidez, emaitza oso beretsuak dira bi hauteskunderen artean. Podemosi, berriz, EAJren aurkakoa pasa zaio. Udal hauteskundeetan 50 boto gutxiago jaso dituzte, eta Aldundirako babes gehiago izan dute. Batek baino gehiagok udal hauteskundeetan EAJ-PNVri eman dio botoa, eta, Aldundian, Podemosi.

Azken zinegotzia EH Bilduren eta Podemosen artean

28 bozkengatik Podemos zinegotzi gabe geratu da. D'hondt legegaren arabera, babesaren %5aren gainetik zinegotzi bat lor daiteke. %5,73ko portzentaiarekin, kanpoan geratu da Urnietan.

Vaquero zinegotzi Larraulen; Esnaola Adunan, aldiz, ez

EAJ-PNV alderdiak Tolosaldeko hainbat udalerritan beste herrietako hautagaiak proposatu ditu. Vaquero Larraulen zinegotzi izango da. Esnaolak ez du ordezkartzarik lortu Adunan.

NIRE USTEZ

JON ANDER UBEDA
KAZETARIA

Ez zen aurreikusi igande gaueko emaitza

Ezustea izan zen, hasiera batean, Urnietan emandako emaitza. Baina, oro har, Gipuzkoa osoko emaitzak ikusita, testuinguru orokor baten barnean aztertu behar dira igandeko emaitzak. Bereziki, Urnietara etorrita, EAJ-PNVri dagozkionak.

Bere garaian, Mikel Pagolarekin abiatu zen ziklo politikoan jeltzaleek bazutelako taldea, eta ingurua. Sare zabal horri esker, urnietarren babes handia jaso izan dute. Gehiengo osoz, bi agintalditan jarraian aritzeko, irismen maila handia behar da Urnietan. Eta EAJ-PNV dohai horren jabe da.

Baina, politikan, ezustek ematen dira eta igande gauekoak bizitza politikoa astinduko du. Herme Gonzalez sozialisten buruak garrantzi handia hartuko du agintaldi honetan. Horixe izan da bere erregua, urte hauetan, erabaki politikoetan esku hartzeko aukera izatea. Bada, oraingoan, aukera hori izango du. Eta, nola, gainera. Bere bi botoekin Eukeni Garmendia alkate izendatu dezake. Duen boterearen adibide argigarria da. Gaurkoz, fikzio politikoa da. Hori gertatzeko, Herme Gonzalezek Gipuzkoako sozialisten oniritzia beharko luke, eta ez dirudi hori gertatuko denik.

Herme Gonzalezek eta Consuelo Frutosek eskarmentu handia dute, Urnietako udal politikagintzan. Eta ezaguna eta agerikoa izan da jeltzaleekiko erakutsi duten jarrera zorrotza. Gogorra, eta zorrotza. EAJ-PNV horren jakitun da, eta jakin badaki bozketetan gehiengo osoa ziurtatzeko PSE-EEren premia izango duela.

Politika gogoz edo pasioz bizi duenarentzat, datorren ziklo politikoa ez da batere aspergarria izango.

ANALISIA

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

Abstentzio handiena Alejandro Calongen, Bazkardon eta Ama Kandida etorbidean eman da

Zer gertatu da Andoainen? Datuetatik hainbat interpretazio atera daitezke. Eta horiek, noski, askotarikoak izan daitezke. Luze eta zabal aztertze modukoa da. Hona hemen, igandekoa ulertzeko hainbat xehetasun baliagarri. Botoa emateko eskubidea dutenen % 58ak eman du bozka, oraingoan. Abstentzioa, beraz, % 41 pasatxo da.

Adina, saihestu ezin daitekeen faktorea

Auzoka –sekzioka, udal administrazioaren hizkeran– aztertzen hasita, adina kontuan hartu beharreko faktorea dela esango genuke. Auzune berrietan, familia berriak gehien bizi diren auzoetan, parte hartzea handitu egin da. Eta, aldiz, adinean zaharragoa den eremuetan igo dena abstentzioa izan da. Azaldu dezagun hori adibideen bitartez. 2. sekzioan botoa ematen dute Zumea plazako, Belabi kaleko eta Txitibar plazako bizilagunek. Hango bi mahaien batez bestekoa %67koa izan da.

4. sekzioan, aldiz, Doktor Huitzi, Ondarreta eta Zuberoan parte-hartzea % 53koa izan da.

Alejandro Calonge, Bazkardo eta Ama Kandida etorbideko mahai batean aurki daiteke parte hartze baxuena: % 50,38koa.

6. sekzioan kokatzen da eremu hori.

Adina eta motibazioa, uztargarriak diren bi faktore

Adinak ez du zertan botoa emateko garaian oztupoa izan behar. Motibazioan eragin dezake, hori bai. Har dezagun berriro, 6. sekzioa. Alejandro Calonge, Bazkardo eta Ama Kandida etorbideko mahai horietan boto jaitsiera eman da. Galera handiena EAJ-PNVk eta Elkarrekin

Sekzioak	Errolda	Botoak	Parte hartze %	Zuriak	Ezlagabak	EH-Bildu	PSE-EE	EAJ-PNV	PP	Elkarrekin Podemos
1 A Mahai	527	310	58,82%	7	2	149	55	68	5	11
1 B Mahai	509	301	59,14%	5	3	154	61	55	4	11
2 A Mahai	655	439	66,87%	8	5	246	62	92	5	20
2 B Mahai	666	456	68,47%	8	6	240	74	86	7	16
3 A Mahai	821	589	71,74%	8	7	231	94	77	15	36
3 B Mahai	817	494	60,47%	5	4	237	129	55	13	51
4 Bakarra	725	388	53,52%	5	4	184	76	80	10	27
5 A Mahai	450	283	62,89%	8	4	105	135	28	14	12
5 B Mahai	442	252	57,01%	5	4	61	135	38	13	15
6 A Mahai	448	248	55,36%	7	1	87	86	40	7	16
6 B Mahai	397	200	50,38%	6	3	65	83	30	4	13
7 A Mahai	476	294	61,77%	5	4	92	80	54	9	16
7 B Mahai	458	254	55,46%	5	3	65	117	38	10	16
8 A Mahai	446	257	57,62%	6	6	112	46	48	29	6
8 B Mahai	498	274	55,02%	5	1	136	36	79	13	9
9 A Mahai	462	260	56,28%	5	4	118	53	44	8	14
9 B Mahai	418	233	55,74%	4	6	110	46	44	11	12
10 A Mahai	480	255	53,13%	0	0	103	71	62	5	13
10 B Mahai	464	268	57,76%	8	2	113	59	60	9	17
11 A Mahai	570	334	58,60%	5	3	149	90	47	18	22
11 B Mahai	525	292	55,62%	5	7	108	86	50	17	19
Gutture	11.264	6346	56,35%	122	76	2890	1649	1178	128	405

UDALA

Podemosek izan dute. Eta, aldiz, 2. sekzioan, parte-hartze handiena izan den eremuan, botoetan hazi den alderdi bakarra EH Bildu izan da. Azken alderdi honek piztu du motibazio handiena.

C2ak gehien kaltetuko dituen eremuak

6. sekzioan botoa eman dute Alejandro Calonge, Ama Kandida etorbidea, Bazkardo plaza eta Rikardo Arregi kaleko bizilagunek.

Abstentzioa batatz bestearen gainera igo da. Alderdien botoei erreparatu, denek botoak galdu dituzte. Bakan batzuk EH Bildu eta PSE-EEk, eta dozenaka EAJ-PNVk. Ondorioen artean, bada bat aipa daitekeena. Zigorra, eman bada, eremu horretan abstentzioaren bidez kanalizatu dela esan daiteke.

11. sekzioan botoa ematera deituta zeuden Mimendikoak, Doktor Huitzikoak, Goikoplaza aldekoak eta Agustin Leitzakoak. Abstentzioa pittin bat handiagoa izan da. Botoetan igo den alderdi bakarra PP izan da. EH Bilduk 4 boto galdu ditu, Elkarrekin Podemosek 15, PSE-EEk 62 eta

EAJ-PNVk 70. Eremu horretan ere abstentzioa joera bilakatu da.

Sorabilla, C2arekin nabarmenduzen beste eremua

9. sekzioan sartzen dira Aiztondo, Karrika, Gurmendi, Goiburu, Sorabilla eta Errotagain. Eremu horretan EH Bildu izan da botoetan gorantz egin duen bakarra: 30. PSE-EEk 27 boto galdu ditu, Elkarrekin Podemosek 20, EAJ-PNVk 11 eta PPK 2.

EH Bildu, sekzioz sekzio

Alkartasuna, Extremadura, Plazaola eta La Salleko 7. sekzioan galdu ditu boto gehien: 29. Eta 15 boto gehiago galdu ditu 10. sekzioan. Hots, Bertxinen, Galardin eta Joakin Larreta aldean. 6. eta 11. sekziotan 8 eta 4 boto galdu ditu, eta gainerakoetan irabazi. Gorabeherak ohikoak dira, hauteskunde batetik bestera. EH Bilduren kasuan, ez da ahaztu behar Andoainen boto kopuruan eta boto-portzentaian irabazi duela.

PSE-EE, sekzioz sekzio

Sekzio bakar batean irabazi dituzte botoak. 8. dena.

Alkartasuna, Extremadura, Galardi, Plazaola eta La Salle biltzen dituen 7. sekzioan. Gainerako guztietan botoak galdu dituzte. Hala eta guztiz ere, bozka-portzentaia eusten dio PSE-EEk. Boto guztien %25a sozialistena da.

EAJ-PNV, sekzioz sekzio

Galera handiena jeltzaleena da. Sekzio guztietan galdu dituzte botoak. Jaitsiera orokorra da.

Elkarrekin Podemos, sekzio sekzio

Jaitsiera orokorra da, eta galera handiena Leizotz, Buruntza, Gudarien etorbidea eta Manuel Lekuona plaza biltzen dituen 8. sekzioan izan dute. Elizondo eta Nafarroa plazako 5. sekzioan ere jaitsiera nabarmena izan dute.

PP, sekzioz sekzio

Leizotz, Buruntza, Gudarien etorbidea eta Manuel Lekuona plaza biltzen dituen 8. sekzioan 25 boto irabazi dituzte. Eta Txitibar plaza eta Algodonerako emakumeen plaza inguruan 14 boto gehiago eskuratu dituzte. Gainerako eremuetan gorabeherarik ez dute izan.

Hautesmahaiak

1. SEKZIOA: Eskola kalea 2-8, Goikoplaza 9, Erro 2-8, Kaleberria 1-4, Kale Nagusia 1-59, Kaletxiki 5-19 / 2-30 eta La Salle 1-3.
2. SEKZIOA: Aingurasutegi 3-7, Kaleberria 3-15 / 6-50, Leitzaran 2-10, Kale Nagusia atzekaldea, Zumea 1-23 / 2-36, Belabi 2-8, Txitibar 1-4 eta Zumea plaza 1-9 / 2-8.
3. SEKZIOA: Aingurasutegi 12, Belabi 1-11/10, Etxeberrieta 1-5/2-6, A. Larramendi Atzek. 1-3/2-8, A.Larramendi 1-31/2-32, Algodonera 1-7/2-8, Alcacera 1/2, Txitibar plaza 3/2, Txitibar 1/12, P. Etxeberria 1/2, Ugartemendia 1-3, Zeferino Ansa 1/2 eta Martin Ugalde kalea 2/4.
4. SEKZIOA: Belkoain 2A-4, Dr. Huizi 1-19B/2-28, Gernika 2-10, Kale Nagusia 4B, Ondarreta 1-9/2A-12 eta Zuberoa 2-8.
5. SEKZIOA: Arrate kalea 1-9/2-10, Elizondo plaza 1-7/2-6, Nafarroa 1A-5/2-4, P.Baroja kalea 1A-5, Rikardo Arregi 2-4.
6. SEKZIOA: Calonge, Ama Kandida, Bazkardo plaza 1-11/2-12, Bazkardo auzunea 1-3/2 eta Rikardo Arregi kalea z/g 7-12/6-20.
7. SEKZIOA: Alkartasuna 1-3/2-6, Extremadura 11-15/8A-14, Galardi 7/10-12, Plazaola 1-47/2-14 eta La Salle 6-14.
8. SEKZIOA: Leizotz, Buruntza, Lizarkola, Gudarien Etorbidea eta Manuel Lekuona plaza.
9. SEKZIOA: Aiztondo, Karrika, Gurmendi, Goiburu, Sorabilla eta Errotagain.
10. SEKZIOA: Bertxin 1-7/2 Extremadura 1-9/2A-4B, G. Aresti 1-17/2, Galardi 1-5/2-8, Geltoki auzoa, Joakin Larreta 1A/39, La Salle 5-9/2-4 eta Olagain 1-5/2-6.
11. SEKZIOA: Agustin Leitza, Goikoplaza 1-7/2-8 R. Arregi 1-5, Arteta 1-9, Mimendi 1-3/2-26. Dr. Huizi 21-27 eta Kale Nagusia 2-4.

POSTONTZIA

EH BILDU ANDOAIN

Garaipen argia lortuta, Andoainen beste aro politiko bat zabalduko dugu

2019. urteko udal hauteskundeetako gaua ahaztezina izan bazen, zer esan atzokoaz. Berriz ere gure marka propioa hautsi eta inoizko hautagaitzarik bozkatuena izan gara boto-kopuruan eta, oraingoan, baita boto portzentaian ere. Garaipen sendo honek merezi zuen igandean egin genuen ospakizuna, ez baitira errazak izan azken lau urte hauek EH Bildu osatzen dugunontzat.

Baina ospakizunak alboratu eta lanean hasteko eguna da gaurkoa. Emaiztak ondo aztertu eta irakurri behar ditugu, baita parte-hartzearen ere, nola ez. Eta horrekin batera, etorkizun hurbila planifikatzen eta antolatzen hasi behar gara denbora galdu gabe. Hori dela eta, asteazkenean, gure Mahai Politikoa elkartu genuen, eta



EH Bilduko udal taldea, Zumea kaleko Bilgunean, igande gaueko emaitzak jaso berritan. Bildu ziren pertsonentzat lehen adierazpenak egin zituen Alvarezek. AIURRI

bertan erabaki genituen datozen egunetako zeregin guztiak. Lehen balorazio honetan, andoaindarrei gure eskerrak ematearekin batera, emaitza hauek apaltasun eta ardura osoz hartzen ditugula

esateko baliatu nahi dugu. Jakitun gara azken urte hauek nolakoak izan diren herritar askorentzat. Testuinguru ekonomiko eta sozial gogor bat ari gara bizitzen, eta Andoaingo

Udalak dituen eskumenekin lehenetsunak argi izan behar ditu. EH Bilduk udal gobernu sendoa osatu nahi du, eta horrela izango da. Datozen lau urteak erabakigarriak dira urgentzia handiko gai

askorentzat, baita ere Andoainek behar dituen proiektu estrategikoak bideratzeko. Horretarako, arin eta sendo funtzionatuko duen gobernu nahi dugu.

Gobernantza kolaboratiboan sinesten dugu. Horrela egin dugu iraganean gobernatu dugunean, eta horrela egingo dugu oraingoan ere. Udaleko alderdi guztiekin elkarlana egin nahi dugu, alderdi guztien iritzia eta begirada kontuan hartu nahi ditugu. Horretarako, nola ez, ohikoa den bilera erronda egingo dugu alderdi politiko guztiekin.

Baina udal gobernu berriak herritarren eta herriko elkarte aktiboen parte-hartzea izango du ardatz gisa. Azken urteotan eta, batez ere, kanpainan agindu duguna egingo dugu. Horretarako, herriko elkarten parte-hartze aktiboa bilatuko dugu.

EH Bildu, bederatzigarrena lortzetik gertu

84 boto falta izan zitzaizkion EH Bilduri, bederatzigarren zinegotzia eskuratzeko. Aitor Ibar-guren Larrarte, botoen zenbaketaren hainbat unetan, zinegotzi izatera iritsi zen. Maria

Belen Moreno PSE-EEren bosgarren hautetsia kolokan egon zen. Azkenerako, PSE-EEk zituen bost ordezkarietako eutsi ahal izan dio. EH Bildu 8 eta 9 zinegotziren artean izan zen, azkenerarte. PSE-EE, berriz, 4 eta 5 zinegotziren artean. PPri 129 boto falta izan zitzaizkion zinegotzia lortzeko.

Xabier Urdangarin, Astigarragako alkate

Andoainen jaiotako Xabier Urdangarin Lasak alkatetzan errepikatuko du. 8 zinegotzi lortuta, gehiengo osoarekin, EH Bildu izango da gobernuan. EAJ-PNVk 4 hautetsi ditu, eta PSE-EEk 1.

Leire Artola, Beasaingo alkate

Andoainen jaiotako Leire Artola Ugaldek alkatetzan jarraituko du. 9 zinegotzi lortuta, gehiengo osoarekin, EAJ-PNVk aginduko du. EH Bilduk 5 hautetsi ditu, PSE-EEk 2 eta Podemosek 1.

Kristina Rodriguez, Adunako alkate


25 urte dira Adunan bizi dela Kristina Rodriguez Mendikute. 7 zinegotzi lortu ditu EH Bilduk, Adunan. Gaspar Esnaola urnietarra EAJ-PNVtik aurkezten zen, eta esku hutsik geratu da.



Hauteskunde-gaua

AIURRI.EUS

BIDEOAK, GRAFIKOAK, DATUAK, IRUDIAK





Ana Gabilondo Balda eta Leire Ibarbia Aburuza. AIURRI

“Dantzariarentzat egun handia da ‘Urnieta dantzan’ ekimena”

ANA GABILONDO BALDA ETA LEIRE IBARBIA ABURUZA EGAPE DANTZA TALDEA XVII. “Urnieta dantzan” ekimena antolatu du Egape Dantza Taldeak asteburu honetan, Gazte Festetan. Usurbilgo dantza taldeko kideek ere parte hartuko dute

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Hemen dira Gazte Festak, azken orduan iragarri badituzte ere. Hala, askotariko hitzorduz jositako egitarau oparoa osatu dute herriko eragileek, tartean, Egape Dantza Taldeak XVII. “Urnieta dantzan” ekimena egingo dute, urtero legez. Elkarteko kide dira Leire Ibarbia Aburuza eta Ana Gabilondo Balda, antolaketan, buru-belarri.

“Urnieta Dantzan” hitzorduak presentzia berezia hartzen du beti

Gazte Festetan. Nola bizi duzue zuek barrutik?

Leire Ibarbia Aburuza: Topera. Aurretan, gainera, aldaketa asko daude, besteak beste, Plazido Mujika obretan dagoelako. Orduan, Egape Ikastolan egingo da, futbol zelaian. Egitura aldatu behar izan dugu, baita zenbait baimen eskatu ere. Ohituta geunden Plazido Muxikan egiten, eserleku gehiago daude, gainera. Bestalde, ekainean izango dugu, era berean, ikasturte amaierako

emanaldi nagusia. Elkarren oso gertu daude datak, hauteskundeengatik atzeratu egin direlako Gazte Festak.

Ana Gabilondo Balda: Koordinazio handia eskatzen du egunak, dantzari-talde bakoitzak txistulariak behar ditu, antolatzaileak behar ditu. Lehen, herri osoko txoko askotan sakabanatuta egiten ziren dantzak. Orain, aldiz, Idiazabal kalean barrena. Politagoa gelditzen da horrela, eta errazagoa da ikus-entzuleen-

tzat emanaldi guztiak ikustea. Horrek guztiak, ordea, lana dakar.

L.I.A.: Eguraldi ona egitea espero dugu. Bestela, Udal Kiroldagian izango da ekitaldia. Egia da ia bi hamarkadako ibilbidean, birritan egin digula, soilik, eguraldi kaskarra. Hortaz, espero dugu, eguzkia ateratzea eta bero handiegirik ez egitea. Izan ere, Egape Ikastolako futbol zelaian ez dago itzalik, kasik.

Zenbat pertsona zaudete lanean horrelako ekimen bat koordinatzeko?

L.I.A.: Finean, sei pertsona gaude. Jende gehiago dago batzordean apuntatuta, baina lana, bere horretan, sei bat kidek egiten dugu. Oso kopuru txikia da hori. Arduradun berriak behar dira. **A.G.B.:** Errazenera jotzeko ohitura daukagu beti, “aeten batek egingo du”. Oso ekitaldi ederra da, baina hori ondo antolatu beharra dago eta lan handia da: bolondresak, musika, arropa, dantzak koordinatzea... Nork bere bizitza pertsonala du, gainera.

L.I.A.: Eta pena emango lidake umeez ikasturte osoan egiten duten lana herriaren aurrean ezin aurkeztea. Oso aberasgarria da herri txiki batean horrenbeste dantzari egotea: euskal kultura eta euskara zabaltzen dugu eta inportantea da.

A.G.B.: Dantzariarentzat egun handia da “Urnieta dantzan” ekimena, ikasturte osoan egindako lana erakusteko aukera izaten dutelako. Eskolaz kanpoko jarduera da haur eta nerabeentzat euskal dantza, baina konprometuz maila handia erakusten dute.

L.I.A.: Edu Muruamendiaren, irakaslea, koreografoa da. Hala, nire ustez, beste ikuspuntu puntu batetik erreparatzen die klaseei. Txikitatik, diziplina transmititzen die dantzariari, baita helduon kasuan ere. Hori horrela, txukun-txukunak izan ohi dira Egape Dantza Taldearen jendaurreko ikuskizunak.

A.G.B.: Koreografiak, gainera, oso berritzaileak dira, bai mugimendu aldetik, bai musika aldetik. Dantzariak aukeratzen dituzte

“OSO LOTUTA DAGO HERRIAREKIN EGAPE. HERRI TXIKI BATENTZAT INPORTANTEA DA”

kantuak, eta dantzak ere, adin batetik aurrera, beraiek diseinatzen dituzte, Eduren gidaritzapean.

L.I.A.: Horixe da bere esentzia, beste gauza batzuen artean, autonomia ematen digu dantzariok.

Haur, gazte eta heldu. Zenbat dantzari aterako zarete guztira?

L.I.A.: Guztira, Egape Dantza Taldeko 196 kidek hartuko dugu parte egun horretan. Lau, bost eta sei urtekoek San Juan plazan egingo dute emanaldia, 11.45ean. Amaitean, Yurramendi kalea gurutzatuta, Idiazabal zeharkatuko dute trikitilarien laguntzaz, Egape Ikastolara iristeraino. Hala, LH 2. mailatik aurrera, 11:00etan bilduko gara Egape Ikastolan, Idiazabal kalera joateko. Bertan, bost gune egongo dira, Guriatik hasi eta Xauxar tabernara bitarte. Esparru bakoitzeko, bi talde egongo dira. Hala, guztiak batera hasiko gara dantzan, 11:30ean. 12:30ean, ikastolara joango gara, emanaldi nagusia egiteko. Hasieran eta bukeran, bi pieza dantzatuko ditugu guztiak batera, eta nork bere dantza egingo du, tartean. Bukatzeko frontoian, bazkaria egingo dugu.

Urnietarrez gain, dantzari usurbildarrak ere gonbidatu dituzue.

L.I.A.: Beti gonbidatzen dugu elkar, azken urteetan. Oso talde jatorra dute, eta ederki moldatzen gara.

Gazte Festetako egitarauan, ekitaldi askotan ikus daiteke Egape Dantza Taldea.

L.I.A.: Hori da, bai. Ostiralean, txupinazoan hartuko dute parte bi taldek, 15-16 urte bitartekoek. Bestalde, ekainaren 4an ere izango gara, Txanbolin Txistulari Bandaren ekitaldian, LH 5-eko dantzariekin.

Horrenbestez, buruhausteak buruhauste, aisialdi giroan oraindik indartsu mantentzen den herri-eragilea zarete.

A.G.B.: Dantza beti egoten da tartean herriko egun berezietan. Eta jendeak gurekin kontaktatu du horretarako: festetan, jaunartzeetan, omenaldietan...

L.I.A.: Oso lotuta dago herriarekin Egape Dantza Taldea. Dantzaren munduan dabilen jendeak Egape Dantza Taldeagatik eta Edu Muruamendiarenagatik ezagutzen du Urnieta. Eta hori, gurea bezalako herri txiki batentzat, inportantea da.

A.G.B.: Urnieta, Edu Muruamendiaren eta Egape Dantza Taldea. Ekipo bat gara.

EGITARAUA

EKAINAK 2

OSTIRALA

16:30-18:30 11-16 urte bitartekoentzako giza futbolina Egapen.

16:30 Pala txapelketako finala, Kontzejupean. Poxta Zahar taldeak antolatutako lehiaketa.

18:00 Bertso-poteoa tabernaz taberna Aballarri tabernatik hasita. Urnietako bertso eskolako kideen parte-hatzearekin. Pintxo txapelketa tabernetan: edaria eta pintxo 2,5 euro.

18:00-18:30 Etxeberri plazan Jone eta Enararekin trikitilariak.

19:00 Kantujira, Kantazaun taldearen eskutik. Etxeberri Plazatik abiatuta.

19:00 Herriko buruhandi eta erraldioen kalejira, Bosko Anitz txarangak girotuta. Plazido Muxika plazatik San Joan plazara.

19:30 Jaiei hasiera emateko txupinazoa Jai Batzordekoen eskutik. Ondoren, Egapeko dantzarien emanaldia.

20:00 Bosko Anitz txarangaren kalejira, plazatik abiatuta.

20:00-22:00 DJ Flowing, Etxeberri Plazan. Auzokideen elkarteak edari, musika eta janari postua jarriko du.

22:00-02:30 Gazte Gau elektronikoa Etxeberri plazan.

22:30 Oihan Vega DJa, plazan.

23:00-05:00 Kontzertuak. 10etan Makulu eta Txopet, Jakutegi plazan.

EKAINAK 3

LARUNBATA

10:00 Diana. Txanbolin.

11:00-12:30 "XVII Urnieta Dantzan".

11:30 Dantzarien topagunea Egape Ikastolan; jarraian dantza saioak Idiazabal kalean, Etxeberri plazan eta beste hainbat herriko plaza eta kaleetan.

11:45 Dantzari txikiak plazan.

12:30 Emanaldi nagusia Egape Ikastolako futbol zelaian. Euriarekin, Kiroldegian.

13:00 Sagardo dastaketa plazan.

16:00-20:00 V. Slalom jaialdia Erratzuko parkinean.

16:30-17:30 Eskolarteko txirindularitza proba Idiazabal kalean.

17:30 Antzerkia, "Gora Bihotzak" plazan. Euriarekin, Saroben.

18:00-20:00 Matraka Elektrotxaranga, Poxta Zaharrek antolatuta.

18:30-20:00 Haurrentzako tailerrak San Joan plazan.

19:30-23:30 Flower power Ibiza festa San Joan plazan, DJ Katxorrok girotuta. Txuriz jantzita bertaratzeko proposatzen da.

22:00-05:00 Aiaraldeko Sound System eta Little Martin Selektah. Jakutegin plazan.

23:30 Kontzertua San Joan plazan. Euriarekin Egape Ikastolan.

EKAINAK 4

IGANDEA

10:00 Diana. Txanbolin.

11:00-13:00 4 hilabetetik gorako haurrentzako ekajolasen tailerra Egape Ikastolan. Haurrentzako puzgarriak eta jokoak Egape Ikastolan.

11:00-13:30 Oka Jolas Erraldoia Egape Ikastolako jolaslekuan.

11:30 Ibilgailu zaharren lasterketa, Donostiako automobil-zirkuituaren 100. urteurrena dela-eta. Idiazabal kaletik abiatuta.

12:30 San Joan Plazan Txanbolinek eskainitako kontzertu-dantza emanaldia, Egape dantza taldeko dantzariarekin. Euriarekin Saroben.

16:00-18:00 4 hilabetetik gorako haurrentzako ekajolasen tailerra Egape Ikastolan. Haurrentzako puzgarriak eta jokoak Egape Ikastolan.

18:00 Herriko erraldoi eta buruhandien kalejira San Joan plazatik Plazido Muxika plazara, dultzaineroekin.

19:00-21:00 Dantzatze Prest! disko festa San Joan plazan. Euriarekin Egapen.

21:00 Jaien amaiera.

Egitaraua ere Aiurri.eus gunean.



OIHANE LOPEZ DE MURILLAS
tolosarra
Lidergo
Ekintzailea eta
Berrikuntza
(LEINN)
graduaren
2. maila
ikasten ari da
Mondragon
Unibertsitatean.



www.mondragon.edu/prest

"Mondragon Unibertsitateak aukera asko eskaintzen dizkigu ikasleoi"

Zergatik aukeratu duzu LEINN gradua ikastea?

Batxilergoa amaitu nuenean ez nekien zer ikasi, graduak begiratzeko hasi nintzen eta LEINN aurkitu nuen. Castinga egitea erabaki nuen, eta nire izaerarekin -persona aktiboa naiz, taldean lan egiten maite duena- bat etor zitekeela konturatu nintzen. Hasieran, graduari buruzko kezka nituen; izan ere, zalantza samar sartu bainintzen, baina gaur egun oso harro nago hartutako erabakiaz.

Nola baloratzen duzu LEINNen izan duzun esperientzia?

Inoiz ez nuen pentsatu esperientzia hau biziko nuenik. Oso ez ohikoa da eta hori gustatzen zait. Nahiz eta oso gradu gogorra izan, LEINNen asko hazi naiz pertsonalki eta profesionalki, eta horrek pertsona gisa harrotzen nau.

Zer gustatzen zaizu gehien Mondragon Unibertsitatean?

Mondragon Unibertsitatean gehien gustatzen zai-

dana eskaintzen dizkiguten aukerak dira.

Hasiera-hasieratik enpresa bat sortu duzue LEINN graduaren, nola egiten da? hori?

Dirudiena baino konplikatuagoa da, alde praktikoa oso erraza da, baina zailena da erronka gainditzea talde gisa. LEINN enpresa bat eratzea baino askoz gehiago da, taldea eta enpresa-estrategiak oso garrantzitsuak dira, eta horrek ematen dio emozioa graduari. Behin enpresa sortuta, hainbat esparrutan lan egiten duzu, gustuko duzuna aurkitu arte.

Nolako proiektuak garatu dituzue enpresa gisa LEINNen barruan?

Hasieran mota guztietako sektoreetako proiektuak garatzen ditugu, baina orain pixkanaka espezializatzen ari gara, eta, batez ere, oso bideratuta gaude proiektuak garatzera hurrengo arloetan: hezkuntza, kultura, kirola eta teknologia.

Zer iruditzen zaizkizu learning journey-ak eta atzerrirako bidaiak?

Ikaskuntza-bidaiak dira graduaren ekarpen handiena egiten dituzuna. Kultura berriak ikasten dituzu, zure enpresaren kideekin bizi zara, eta horrek beste kideak gehiago ezagutzeko dakar. Aukera izan dut Berlinera eta Costa Ricara bidaiatzeko, eta nire bizitzan ekarpen handia egin duten esperientziak izan dira. Korea-Indiaren erronka dugu aurretik eta enpresa gisa ahalik eta hobekien aurre egiteko beharra dugu, estrategiak sortuz eta haziz talde gisa.

Etorkizunari dagokionez, zein dira zure planak? Nola ikusten duzu zure burua?

Askotan zalantza jarri dut nire etorkizuna, eta horrek kezkatu egiten nau, baina benetan ez nuke jakingo galderari erantzuten. LEINN etengabeko aurkikuntza da eta ez nuke jakingo esaten non ikusten dudanez burua, baina ziur nago gustatzen zaidan zerbaitez, horretan ari bainaiz lanean nire helburuetara iristeko.



Zutik, Begoña Cao, Mirari Iraola eta Amaia Lakalle. Eserita: Eba Tomasena, Ander Armendariz eta Isabel Sanz. BURDINA

Burdina egitasmo berrieekin dator

Burdina taldeak aurten gauzatuko dituen egitasmoen berri jakinarazi du, bere zenbait kideek Gordelekuan berriki egindako agerraldiaren bitartez. Besteak beste, Kaleberrian, Mendoza txurreria izandakoari leku berezia eskaini

Xabier Lasa ANDOAIN

Bost egitasmoetan jarri dituzte begiak zehazki aurtengoan, Eba Tomasena eta Ander Armendarizek adierazi zuten. Hona zeintzuk diren:

1 Sorabillako San Martin elizako kanpandorreko erlojua zaharberritzea. 1789koa da erlojua, eta aspaldiko urtetan baztertuta egon da, erabili ezinik. Piezaz pieza desmuntatu, guztia txukundu, eta berriro elizara eramango du elkarrekin. Bertan, elizaren sarreran beira-arasa batean jendeak ikusteko bistabistan jartzeko asmoa dauka elkarrekin, kanpandorrera igo beharrik gabe. Horretarako, Zumaiako Errementari-erlo-

jugileen Yeregui elkartearekin elkarlanean jardungo dute.

2 Kale Berrian, garai bateko Mendoza txurreria gogoratuko duen espazioa eraiki. Lekua txukundu egingo dute, bertan informazio panela eta esertzeko bankua ipintzeko. Gainera, Mendoza familia eta txurroak egiteko ofizioa deskribatuko dituen liburuxka prestatzen ari dira.

SORABILLAKO SAN MARTIN ELIZAKO KANPANDORREKO ERLOJUA ZAHARBERRITUKO DUTE

3 Ortzakako karobian (Goiburu auzoa), estalpea prestatu. Burdinako kideek gogoratu zuten, estalpeak ohikoak ziren karharria egosiz, karea egiteko erabiltzen ziren aintzinako labe horietan. Karegileak zein beren tresneria ez bustitzeko izaten ziren egokiak.

4 1990ean, Andoaingo herriaren sorreraren 375. urteurreneko ospakizunetan antolatu ziren ekitaldien artean, azpimarratzekoa izan zen Andoaingo ondare etnografiko aberatsarekin lotuta egin zen tresnerien bilketa eta erakusketa. Herriko ikastetxetako ikasleek parte hartu zuten ekimenean, Aranzadi Zientzia Elkarte Fermin



Basogain (Goiburu) baserriko Urola familiak dohaintzan emandako tresneria, txerri-hiltzerako erabiltzen zuena. Familiak berriki utzi du Gordelekun. AIURRI

Leizaola etnografoa zuzendari zelararik. Okasio hartan, tresneria bakoitzari informazio ugari biltzen zuen fitxa itsatsi zioten. Bada, orain, Burdinak Aranzadirekin sinatu duen komeniari esker, digitalizatu egingo ditu fitxa guzti horiek, eta ondoren, Aranzadiren eta Udal Artxiboaren eskura utziko ditu.

5 Gordelekun eginbehar ugari. Makina bat tresneria zahar eta erabilera anitzeko objektu ari dira jasotzen dohaintzan Gordelekun, azken aldian, eta boluntarioak buru-belarri

dabiltza guzti horiek txukuntzen nahiz biziberritzen, eta, ondoren, erakustokian bistara jartzen.

Ate-irekiera, arrakastatsua

Hain justu, Museoen Nazioarteko Eguna ospatu berri dute Gordelekuan. Herritarrei atek Gordelekuko atek ireki, eta behar ziren azalpenak emateko prest agertu ziren, maiatzaren 18, 19 eta 20an. Ia 200 pertsona bertaratu ziren egoitzara, eta pozez txoratzen daude Burdinako kideak, ekimenak edukitako arrakastagatik eta jendeak Gordelekuaren egitasmoarekin agertu duen interesagatik.

Alde horretatik, Burdinako kideek mezua zabaldu diete herritarrei, beste behin, etxean gordeta edo zokoratuta dauzkaten tresna zaharrak Gordelekun dohaintzan utzi ditzaten.

MEZUA ZABALDU DUTE TRESNA ZAHARRAK GORDELEKUN DOHAINZAN UZTEKO



Kima Arzuaga, Izaro Ieregi eta Jon Mikel Fernandez 'Bi Arnas' filmaren sustatzaileak, Donostiako Zinemaldian, iaz.

ZINEMALDIA, GORKA ESTRADA

"Torturak ama eta alabarengan sortutako mina kontatzen du filmak"

JON MIKEL FERNANDEZ BI ARNAS FILMAREN ZUZENDARI ETA GIDOILARIA

Ibilbide luzea egin du dagoeneko laguntza ofizialik gabe ondutako dokumentalak, eta egileek Andoainen aurkeztuko dute ekainaren 9an

Xabier Lasa ANDOAIN

Euskal Herrian torturaren errealitate Iratxe Sorzabal presoaren eta Mari Nieves Diaz bere amaren iuspegitik kontatzen duen filma proiektatuko dute Gaztetxean ekainaren 9an, 19:00etatik aurrera. Irunen, 2022ko maiatzean estreinatu zutenetik, Euskal Herriko eta Europako hain-

bat kultur etxe, antzoki eta jaialdietan proiektatu dute dokumentala. Iazko Zinemaldiko Zinemira sailean erakutsi zuten. *Sense ficció* programaren barruan emititu berri dute, martxoaren 14an, hain zuzen, eta % 10,1eko ikusle kuota bereganatu zuen (193.000 ikus-entzule). Egileek Gaztetxean aurkeztuko dute, eta

solasaldian parte hartuko dute proiektzioaren ostean. Ernai gazte erakundeak antolatu du ekitaldia.

Jon Mikel Fernandez zuzendari eta gidoilaria Aiurriekin mintzatu da, Andoainera hurbiltzeko atarian.

Nolako harrera jaso duzue publikoaren aldetik?

Pozik gaude dokumentalak jaso duen harrerarekin; batetik, espero gabeko zabalpena izan duelako, eta, bestetik, gure bi protagonista nagusiek egindako lana eskertu digutelako. Kontuan hartu behar da urtebetean Euskal Herriko 60 bat txokotan emanaldiak eskaini ditugula, eta, horrez gain, atzerrian ere proiektatu dugula (Berlin, Paris, Buenos Aires, Polonia...). Dударik gabe, gure aurreikuspen baikorrenak gainditu ditu dokumentalak.

"Torturak ama-alaba batengan sortutako zauriak" kontatzen duela diozue.

Zehazki, Iratxe Sorzabalen eta, haren amaren, Mari Nieves Diazen, historia kontatzen du dokumentalak. Lehenak tortura basatiak sufritu zituen 2001. urtean, eta bigarrenak, berriz, 20 urte baino gehiago igaro ditu alabak sufritu zuena salatzen. Zentzu horretan, egia da torturak ama-alaba batzuegan sorrarazi duen mina kontatzen duela dokumentalak, baina, horrekin batera, torturak Euskal Herrian utzitako orbaina ere islatzen du. Izan ere, maiz, historia pertsonalak dira errealitate orokorragoak azaleratzeko tresnarik eraginkorrenak.

Dokumentala definitzeko orduan, bidegabakeria baten isla dela adierazi duzue eta sekula eskaini ez den elkarrizketa bat dela. Sakondu al zenezake bi ideia horietan?

Espainiako Estatuak milaka eta milaka euskal herritar torturatu izanagatik ere, epaitegiek ez dute inor zigortu, eta nik dakidala tortura delitu bat da, eta grabea, oso. Horregatik diogu Euskal Herriak azken hamarkadetan sufritu duen bidegabekeriari edo injustiziarik nbarmentako bat dela tortura.

Bestalde, gure aurkezpenetan "sekula eskaini ez den elkarrizketa bat" aipatzen dugula diozu, eta halaxe da; izan ere, Iratxek eta Mari Nievesek ez zuten sekula, orain arte behintzat, torturari buruz hitz egin haien artean. Dokumentalak eskaini die horretarako aukera nolabait, eta, horregatik, urte luzeetan, haien artean, tabu izandako gai bat azalaratzeko bitartekoa izan da 'Bi Arnas'.

Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren txostenek diote milaka direla torturatuak. Nolanahi



Filmaren kartela. AIURRI

ere, ez dago ikus-entzunezko askorik errealitate hori modu pertsonalean eta kamera baten aurrean jasotzen duenik. Oraindik ere hitzegiteko erreparoa daukatela biktima horiek. Iruditzen al zaizue?

Aurreko erantzunarekin harilkatuz, esango nuke torturaren albo-kalteetako bat isiltasuna dela, nork bere buruari inposaturikoa, eta isiltasun hori apurtzea sendagarria izan daitekeen arren, sarri askotan berau gainditzea urratsik zailenetakoa izaten dela. Hain justu, bai Mari Nievesek eta bai Iratxek isiltasun behartu horri buruz hitz egiten dute dokumentalean.

Nor eta zergatik gonbidatuko zenuke ostiral arratsaldean Gaztetxera filma ikustera azal dadin?

Torturaren gaia urruneko errealitatez dutenak eta gazteak gonbidatuko nituzke, bereziki, uste baitut garrantzitsua dela herri honen memoria historikoan etenik ez egotea, eta errealitate honen berri jendarte sektore anitzei ematea.

"TORTURAREN ALBO-KALTEETAKO BAT ISILTASUNA DA, NORK BERE BURUARI INPOSATURIKOIA"

"GAIA URRUNEKO ERREALITATETZAT DUTENAK GONBIDATUKO NITUZKE BEREZIKI"



Aukera bikaina dute Andoaingoek, Herriartekoan aurrera egiteko. AIURRI

Ostiral honetan, Arratera animoak ematera

PILOTA Final laurdenetako joaneko partidaren Andoain 1-2 gailendu zen, Zestoaren aurka. Ostiral honetan, 19:00tan hasita, itzuliko partida jokatuko dute. Irabaziz gero, Herriarteko txapelketako finalaurrekoetara sailkatuko da Andoain

Mikel Arberas ANDOAIN

Andoaindarrek ezustekoa eman nahi dute esku pilotan, Herriartekoan; izan ere, ostiralean, arratsaldeko 19:00tan hasita, Zestoaren aurka jokatuko dituzte itzulerako partidak. Aurreko astean, hiru partidetatik bi irabazi zituzten, eta, beraz, finalerdiko txartela lortzeko bidean dira andoaindarrek.

Mikel Gaztañaga-Aimar Beroz, kadete mailan

Lehen norgehiagokan, Mikel Gaztañaga eta Aimar Beroz kadeteek ezin izan zuten garaipena eskuratu (22-12). Urduritasunak ez zien nahi bezala jokatzeko utzi andoaindarrei; esan beharra dago, tanto gehiago eskuratzeko aukera eduki zutela. Hala eta guztiz ere, Andoain, Arrate pilotalekuan joaneko partidako arantza kentzeko eta garaipena eskuratzeko aukera edukiko dute bi promesek.

Aurreko norgehiagokako emaitza ikusita, jubentilek halabeharrez irabazi behar zuten partida, eta bikain bete zuten beren lana.

Joseba Beroz-Julen Gaztañaga, jubentile mailan

Joseba Berozek eta Julen Gaztañagak irabazi zuten zestoarren aurka (21-22); gutxiengoagatik irabazita lehian bizirik daudela erakutsi nahi izan zuten. Dena esatera, alde handiagoagatik irabazteko aukera eduki zuten.

Horiek horrela, seniorren norgehiagoka erabakigarria bilakatu zen.

Julen Urruzola-Imanol Usandizaga, senior mailan

Itzulerako partidaren faltan, emaitza onekin etxeratzeko aukera paregabea zuten esku artean. Julen Urruzolak eta Imanol Usandizagak ez zuten hutsik egin, eta garaipen argia eskuratu zuten zestoarren aurka (14-22).

Urruzola hasieran batean deseroso kantxaratu zen arren, partidak aurrera egin ahala,

kofiantza berreskuratzen hasi zen. Atzelariaren eta aurrelariaren arteko elkarlana sustraitzen joan zen; Urruzolak bere egin zuen atzealdea, defentsa indartsua eta segurua erakutsita, profesional ohiarengandik espero zen bezala. Aurrealdean, Imanol Usandizagak lan bikaina egin zuen, sakearekin asmatuta eta eraso atzeko koadroetan kokatuta; urteko sorpresa izan da goiburuarra, pilotari ibilbidean atzelari petoa izanda, aurrelari lanetan murgildu eta maila bikaina erakusten ari baita.

Finalaurreko txartela lortzeko bidean da Andoain

Ostiralean, itzulerako partidak jokatuko dira Arrate pilotalekuan, arratsaldeko 19:00tan hasita. Finalerdiko igarotzeko aukera paregabea dute andoaindarrek, eta, beraz, ikusmira handia da. Urte askoren ostean, gainkaldeko postuetan da Andoain.



AIURRI

Gipuzkoako txapeldunak

TXIRRINDULARITZA Legorretan egin zuten Gipuzkoako taldekako erlojuaren kontrako txapelketa, eta, kadete mailan, Andoaingo bi taldeak bikain aritu ziren. Nesketan garaile argiak izan ziren, bigarrenari 50 segundu aterata. Mutiletan zazpigarren sailkatu ziren.



AIURRI

Kontzejupeko finala

Pala txapelketako finala jokatu da, ostiral honetan Urnieta-ko Kontzejupean. 16:30ean hasiko da, Poxta Zahar taldeak antolatuta.

Txirrindularitza proba

Andoaingo Txirrindulari Eskolak antolatuta, eskolarteko proba izango da Urnietan. 16:30ean hasita, Idiazabal kalean ibilbidea prestatuko dute.



Urnietako
udala

Lehen Erregional mailako onenak

FUTBOLA Denboraldia borobildu du Pablo de Torresen taldeak, ligako txapelkun bilakatuta. Aurreko asteburuan lortu zuten, Zumaia-kori 1-4 irabazita. Bi aste atzera igoera ziurtatu zuten, eta, aurreko larunbatean, mailako onena erabakitzeke partida irabazi zuten. Gorengo mailan ariko da taldea, hurrengo denboraldian. Zorionak!



UKE

Mendi-ibilaldia ekainean, Euskaldunaren eskutik

MENDIZALETASUNA

Ekainaren 17an eta 18an mendi irteera antolatu dute, Andoaindik

Erredakzioa ANDOAIN

Kantabriako eta Asturiaseko lurretan mendi-ibilaldia eta Sella ibaiaren jaitsiera uztartzen dituen irteera antolatu du Euskalduna Mendigoizale elkarteak, datozen ekainaren 17 eta 18rako.

Ekainak 17, larunbata

Andoaindik 06:30ean abiatu. Lebeña (Kantabria) herrira iritsi. Bertatik, bi mendi-ibilaldi, bata, motza, eta, bestea, luzea. Lebeña-Cicera mendi-irteera. Gaua, Pintueles herrian, alberge batean.

Ekainak 18, igandea

Arriondas herritik abiatuta, Sella ibaiaren jaitsiera. Arratsaldean, Andoainera itzulera.

Bidaiaren xehetasunak

Prezioak: bazkideek 120 euro, bazkide ez direnek 135 euro. Prezioan sartzen da: joan-etorriko autobusa, Pindueleseko aterpean pentsio osoa, eta Sella-ko jaitsierako kostua.

Ekainaren 10a da izena emateko azken eguna. Honako telefonoetan: 943 592 232 edo 688 684 028 whatsapp bidez), euskaldunamt@yahoo.es e-postara, edo eta, Kale Nagusiko egoitzan bertan.



AIURRI

Slalomaren edizio berria

MOTORRA V. Slalom-a antolatu du Xoxoka Motor kirol klubak. Larunbat honetan, Erratzuko parkinean bilduko dira motorzaleak, 16:00etatik 20:00etara bitartean, parte hartuko duten 18 pitoloen erakustaldiaz gozatzeko. Gainera, puntuagarria izango da Euskadiko txapelketarako.



BURUNTZALDEA

Oihan Matutek domina

IGERIKETA Buruntzaldeako zortzi igerilari Gipuzkoako selekzioarekin lehian aritu ziren, Ordiziako Majori igerilekuan. Bertan izan zen Oihan Matute. Andoaindarrak emaitza ona eskuratu zuen, 200 metroko bular proban brontzezko domiarekin itzuli baitzen etxera.

FINALAURREA

SAGARDOAREN TXAPELKETA™

Ekainak 5. Astelehena 18:00etik aurrera, Galarreta jai alai (Hernani) Orona Sarrera 10€

2. PARTIDA 2 SETS - 10 SANTORA - 3 SETA - 6 SANTORA

Alorrenea URRIZA MARTIRENA

oialume zar GOIKOETHEA V BARRENETHEA IV

3. PARTIDA 2 SETS - 10 SANTORA - 3 SETA - 6 SANTORA

DEKAZIARTUA SEGUROLA JUANENEA

QUIRITA X TOLDA EZKURRA II ZUBIRI

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 1

ANDOAIN Merkataritza
Bonoen kanpaina.
10:00-14:00 / 16:00-20:00.
Ekainak 1 eta 2. Salkin.

ANDOAIN Diru-laguntza deialdia
Info: andoainarraeuskaraz.eus.
Azken eguna: Ekainak 16.

URNIETA Irakurketa feminista
Kontzientzia feministan sakonduz.
17:30-19:30, Lekaio.

ANDOAIN Argazki-erakusketa
Erakusketa kolektiboa.
Ekainak 1-30, Bastero.



URNIETA, ANDOAIN Euskal dantzak

*Ekainak 3, larunbata. Urnieta Dantzan, Gazte Festak.
Ekainak 4, igandea. Andoaingo Haurren Euskal Jaialdia*

OSTIRALA 2

ANDOAIN Antzerkia
"Ez naiz inoiz Dublinen egon".
20:00, Bastero.

URNIETA Gazte Festak
Egitarau osoa, 9. orrialdean.
Ekainak 2-4.

LARUNBATA 3

ANDOAIN Ospakizuna
Ikasturte amaierako festa.
Egun osoan, Ondarreta.

IGANDEA 4

ANDOAIN Haur ikuskizuna
"Argako erregina".
12:00, Bastero. Euskaraz.

ASTELEHENA 5

URNIETA Haur ikuskizuna
Lourdes Iriondo Musika Eskolako ikasleak. Tailerreko partaideak.
17:00, Sarobe.

ASTEARTEA 6

URNIETA Haur ikuskizuna
Lourdes Iriondo Musika Eskolako ikasleak. Taldeko kontzertua.
17:00, Sarobe.

ASTEAZKENA 7

URNIETA Haur ikuskizuna
Lourdes Iriondo Musika Eskolako ikasleak. Kontzertua eta entzunaldia.
*18:00, Sarobe. Talde kontzertua.
19:30, Sarobe. Piano entzunaldia.*


LARUNBATA 10

URNIETA Igerilekua
Taberna ere zabalik izango da.
Ekainaren 10ean hasita.

ANDOAIN Ospakizuna
Aita Larramendi ikastolako jaia.
Egun osoan, Txistoki.

ANDOAIN Rock jaialdia
Aperitif jaialdia:
12:00 Arima. Zumea plaza.
13:00 Siglas. Plaza Morea.
14:00 Krin. Goikoplaza.
Nafarroa plaza:
18:00 Nize.
19:05 The Courettes.
20:30 Chocolat Billy.
22:00 The Giant Robots.
23:15 Black Lips.
01:00 The Schizophonics.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Mi crimen
Lar, 3. 19:30,
22:00.
Ig., 4. 19:30.
Astl, 5. 19:30,
22:00.


Vaya vacaciones

Lar, 3. 17:00.

Ig., 4. 17:00.

Las ocho montañas
Ekainak
10-12.

La sirenita
Ekainak 10-11.



SINOPSISIA

**Mi crimen**

Zuzendaria: François Ozon. **Aktoreak:** Nadia Tereszkiewicz, Isabelle Huppert, Fabrice Luchini, Dany Boon... **Herrialdea:** Frantzia (2023). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, intriga, komedia. **Iraupena:** 102 min.

Intriga eta komedia, biak batera

Ikertzaile batek bankari paristar baten hilketara argitu beharko du. Madeleine nabarmetzen da susmagarri xeble batzuen artetik,

zeinaren ospe eta zori nahiak ikerketaren bidean jarriko baitira. Aktore bikainak, aski ezagunak, Ozon film zuzendari ezagunaren azken filman.

LARRAMENDI BAZKUNAK ADMINISTRARIA BEHAR DU

BAZKUNAREN DIRUKONTUAK ETA ADMINISTRAZIOA KUDEATZEKO

Eskatzen da:

- Euskaraz lan egiteko erabateko gaitasuna izatea hitzez zein idatziz.
- Dirukontuak kudeatzeko aplikazio informatikoen erabilera ongi ezagutzea.
- Enpresa kudeaketa eta administrazio ikasketarik egin izana.

Baloratuko da:

- Gisa bereko lanetan izandako eskarmentua.
- Euskalgintzarekin lotura duten ekimen edo eginkizunetan lan egin izana.
- MLKB-eko bazkide izatea.
- Ingelesa edo frantseseko ezagutzarik izatea.

Eskaintzen da:

- Astean hamar orduko laneguna. Berehala hastekoa.

Aurkezteko epea:

- Curriculumak aurkezteko epea ekainaren 9an amaituko da.

Bidali edo aurkeztu zure curriculum-a harrera@larramendibazkuna.eus helbidera edo helbide honetara:
Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. Dr. Huizi kalea, 15-1. 20140 ANDOAIN (656-782-521)





AIURRI

Santakruzetako pintxo

TxuriBeltz tabernak pintxo dastaketa egingo du, aurtengo Santa Krutz jaietan irabazle izan zen pintxo bezeroei eskaini asmoz. Larunbatean eta igandean, eguerdiko 12:00etatik 15:00etara bitarte, pintxo dastatzeko aukera izango da. Horrez gain, terraza musikatua jarriko dutela adierazi dute.



AIURRI

Argazki-mostra kolektiboa

"Begiratzeko ohitura, sortzeko pribilegioa" izenburupean, Xabier Alkorta, Eduardo Arresegor, Bertol Arrieta, Haizea Brosa, Itziar Gutierrez, Xabier Huitzi, Jon Jauregi, Juanan Lazkano, Aitor Regillaga, Maddi Trutxuelo, Nerea Uralde eta Rosa Zozaya argazkilarien erakusketa zabalik izango da Basteron, ekainaren 1etik 30era.



AIURRI

Haurren euskal jaialdia

Urki dantza taldeak antolatuta, Euskal Jaialdia Eguna ospatuko da igande honetan. Kultur ekitaldi jendetsua izan ohi da, bertako eta beste herrietako dantza taldeak hurbiltzen baitira. Arratsaldean, 17:00etan hasita, Malkogariyak musika taldea zuzenean ariko da.

KOMUNITATEA

ONDARRETA IKASTETXEA ANDOAIN

Ikasture amaierako jai



AIURRI

Larunbat honetan, Ondarreta ikastetxeak ikasturte amaierako festa ospatuko du. Goizean, bertsolariak izango dira eta ziklo desberdinetako ikasleen abesti eta dantza emanaldia izango da. Honekin batera, pintxo, tortila eta postre lehiaketa nahiz tailerrak egongo dira. Leizarango ikasleek bigarren eskuko azoka jarriko dute. Eguerdian, berriz, guraso, ikasle eta irakasleen bazkaria izango da patioan eta arratsaldean festak jarraituko du. Besteak beste, puzgarriak izango dira.

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
JOXE M. OLLAKARIZKETA
Ekainaren 2an urteak beteko ditu. Zorionak eta urte askoan Joxe Mari!!! Ziur, ondo ospatuko duzula. Muxuak. Etxekoak



ANDOAIN
Josu Rabadan Larrea
Etxeko txikiak, 4 urte beteko ditu ekainaren 6an. Opari pila izango dituzu eta muxuak ere bai. Egun ederra pasa!



ANDOAIN
Eki Zia Marcos
Zorionak etxeko txikiari!!!!



ANDOAIN
Ane Garmendia Albisu
Zorionak printzesa! Mila muxu eta besarkada etxekoan partetik

ODOL-EMAILEAK



HURRENGO HITZORDUAK

Ekainak 12, astelehena.
16:30-20:30. ANDOAIN, Anbulatorioa
Hitzordua hartzeko: 943 007 884.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.



andoaINDARRA
euskaraz



Bonuen kanpaina berria

Udalak eta Salkinek erosketa-bono berriak atera dituzte, ekainean kontsumoa areagotzeko. 25 euro ordainduta, 50 euroko balioa izango duen bonua eskuratuko du erosle bakoitzak. Kontsumoan izango duen eragina 100.000 eurokoa izango da



2021eko ekainean ilarak sortu ziren, Agustin Leiza kaleko egoitzan. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Gabonetako kanpaina arrakatsuaren ondoren, Andoaingo Udaleko Sustapen Ekonomikoak eta Salkinek ekaineko ekimen berria aurkeztu dute. 25 euro ordainduta, bonuek 50 euroko balioa izango dute merkatuan. Tikitak ekainaren 1an eta 2an salgai izango dira, Salkinek Agustin Leiza kalean duen bulegoan. Erabiltzeko epea ekainaren 5etik 30era bitartekoa da. Erosketa, beraz, hilabete honetan bertan egin beharko da.

Bi mila bonu, andoaindarren esku

Udalak, tokiko kontsumoa sustatzeko, 2.000 bonu kaleratu ditu, Salkinekin lankidetzan. Bonuak eskuratu ahal izateko tikitak ekainaren 1 eta 2an banatuko dira eta bonuak 5etik 9ra erosi ahal izango dira.

Andoaingo Udalak, prentsa-ohar bidez, herriko kontsumoan eragin nahi duela adierazi du: "Kontsumo-bonuen udako kanpainak 100.000 euroko inbertsio zuzena ahalbiditytuko du eta ekimena pizgarri ekonomikoa izatea espero da".

Bonua eskuratzeko prozedura

- Egoitza: Salkin elkarteak. Agustin Leiza kalea, 11.
- Ordutegia: 10:00-14:00etara / 16:00-20:00.
- Prezioa: 25 euro.
- Balioa: Bonuak 50 euroko balioa izango du erosketa egiteko garaian.
- Eroslea: Andoaingo adin nagusikoak 25 euroko prezioan eros dezake bonua.
- Oharra: Bonua erosteko NANA aurkeztu behar da.
- Ordainketa: Kreditu-txartelarekin. Ez da eskudirurik onartuko.
- Sustatzailea: Andoaingo Udala, Sustapen ekonomikoa.



ANDOAINGO UDALA

TXARTELAK
ESKURATU:
EKAINAK 1 eta 2*

BONOAK EROSI:
EKAINAK 5etik 9ra*

ERABILI BONUA
EKAINAK 30
BAINO LEHEN

* Salkinen bulegoan goiz eta arratsaldean.

S2
SALKIN
 bertatik bertara